



KRISTAU-PRESTAKUNTZARAKO MATERIALAK 2024

GAZTEEN KATEKESIA

EKIMENAK

Klimaren ondorio kaltegarriei aurre egiteko eta justizia klimatikoa bultzatzeko ekintza zehatzak



HOLANDA


Holandan, uholdeek gehien kaltetzen dituzten eremuetan, itsasoaren maila igotzen denean uraren gainean flota dezaketen etxeak eraikitzen dituzte.

Vietnamen, Mekong ibaiaren deltan, nekazariek dikeak jartzen dituzte tifoien garaian, mangleak landatzen dituzte, eta igeri egiten ikasten dute. Salbamendu-txalupak ere erabiltzen dituzte.



VIETNAM

Ikusi Holandaren eta Vietnamen arteko aldea.



Indian, Mendebaldeko Bengal, Ganges ibaiaren deltako herrixketan bizi diren emakumeak banbuzko plataforma goratuak eraikitzen aritzen dira, *machan* izenekoak, montzoiaren garaian izaten diren uholdeak iristean haietan babesteko.

Bangladeshen, jende asko *char* izeneko uharte ahul batzuetan bizi da. Haien egiten dituzte uharte-moduko horiek, makil edo dikeen gainean, eta haien gainean eraikitzen dituzte haien etxeak. Montzoiaren garaian, bai *char* uharteak eta bai etxeak hondatuta geratzen dira.



Bangladeshen, nekazariak «lorategi flotatzaileak» eraikitzen dituzte uholde-garaian urez estalita gelditzen diren eremuetan. Hiazintoz egindako plataformak dira, eta horietan barazkiak landatzen dituzte.

Sri Lankan, ur gazia ondo jasaten duten eta ur gutxiagorekin bizi daitezkeen arroz-barietateekin esperimentatzen hasi dira.

